

produktu kimikoei dagozkien arriskuen prebentzioa

8

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOA

Eragile kimikoa: Gai edo konposatu kimiko oro, bera bakarrik edo beste batzuekin nahasia, egoera naturalean dagoena edo lan-jarduera batean ekoitzi, erabili edo isuria dena –baita hondakin bezala isuria ere-, helburu jakin baterako prestatua izan edo ez izan, eta merkaturatua egon nahiz ez egon.

Eragile kimiko baten eraginpean egotea: lantokian eragile kimikoren bat izan eta langilea horrekin kontaktuan egotea, gehienetan arnasaren bidez edo larruazalean barrena sartuta.

Eragile kimiko arriskutsua: langileen segurtasuna eta osasuna arriskuan jar ditzakeen eragile kimikoa, bai bere ezaugarri kimiko edo toxikologikoengatik eta baita lantokian ematen dioten erabileragatik edo toki desegokian egoteagatik ere.

HORRI DAGOKION ARRISKU NAGUSIAK:

ARRISKU KIMIKOA.

- Substantzien ezaugarri arriskutsuak ez ezagutzea.
- Identifikatu gabeko substantziak.
- Substantziak behar ez bezala edo oso denbora luzean gordetzea.
- Segurtasun-datuen fitxak eskura ez izatea.
- Lanerako metodoak eta prozedurak ez ezagutzea.
- Giro-kutsadura sortzea, produktu kimikoak dituzten ontziak irekita edo gaizki itxita edukitzeagatik, aireztapen egokia ez izateagatik, xurgatze- eta ateratze-ekipoak eta abar ez erabiltzeagatik edo gaizki erabiltzeagatik.
- Laborategiko material desegokia edo kalitate txarrekoa erabiltzea.

ZIPRIZTINAK, PROIEKZIOAK, ERREDURAK.

- Jarioak, isuriak, atmosfera kutsatuak.

SUTEA, LEHERKETA.

LANEKO OHITURA TXARRAK.



PREBENTZIOA

INFORMAZIOA

- Produktua erabili aurretik ondo begiratu **SEGURTASUN-DATUEN FITXA**n; fitxa hori ez baduzu, eska iezaiozu zure tarteko arduradunari.
- Manipulatzen hasi aurretik fitxa ondo irakurri eta **jarraibideen arabera** erabil ezazu.
- Beharrezkoak diren lan-protokoloak erabili.

MANIPULAZIO EGOKIA

- Erabili beharreko **produktuak identifikatu**. Oso kontuan hartu beren sailkapena dela-eta, arrisku berezia izan dezaketenak: minbizi-sortzaileak, mutagenoak, teratogenoak eta abar.
- **Kontu handiz erabil itzazu**; ez sartu poltsikoetan, ez itzazu ukitu edo probatu, eta pipetekin lan egitean ez itzazu ahoarekin ukitu. Erabil itzazu beti espatulak, pintzak edo egokiak diren bestelako tresnak.
- Gai kutsagarria **airean ez zabaltzeko neurriak hartu**:
 - Behin erabiliz gero, **ontziak estali**.
 - **Ontzi-aldaketa** guztiak egiteko **jende gutxi dabilen toki egoki** bat aukeratu behar duzu. Kantitate handiak ontziz aldatu behar dituzunean, erabil itzazu teknika egokiak, adibidez ponpa edo sifoiak.
 - **Aireztapen egokia duzula egiaztatu**.
 - Ahal duzun guztietan eta eraginkorra denean, **beira-arasetan lan egin**.
- Produktuen eta/edo substantzia arriskutsuen sintesia edo manipulazioa egin behar duzunean ondo aztertu laneko planaren alderdi guztiak.
- Produktu kimiko eta arriskutsuekin lan egingo duzun lekua ondo seinaleztatu eta mugatu.
- Segurtasun-datuen fitxan adierazitako **norberaren babes-ekipoak erabil** itzazu (produktu kimikoak manipulatutako behar dituzunean gutxienez esku-larruak erabili).
- **Produktuak eta materialak egoera onean** daudela erakusten duten berme guztiak egiaztatu.
- **Ez itzazu** ontziak **berriro erabili** beste produktu batzuetarako.
- Ez itzazu entsegu-hodiak 2 edo 3 cm baino gehiago bete. Hatzekin hartu behar dituzu, inoiz ez eskuarekin. Albo batetik berotu itzazu, pintzak erabiliz, eta euskarri egokiak (tentegailuak) baliatu horiek gordetzeko edo materialari ondo eusteko.
- Prozesua hasi aurretik behar diren erreaktiboak presta itzazu gerta daitezkeen jarioak, zipriztinak edo proiektzioak indargabetzeko, eta bestetik, beharrezko materiala presta ezazu askaturiko gasak edo lurrinak kentzeko.
- Produktu kimikoak sua sor daitezkeen lekuetatik eta berotasun-iturrietatik urrun eduki.
- Sugar bizien erabilera ahalik eta gehien murriztu. Bünsen erregailuak pizteko ahal dela behintzat, pizgailu piezoelektrikoak erabili.



BILTEGIRATZE KONTROLATUA

- Lan egiteko beharrezkoa den **gutxieneko erreserba eduki beti**.
- Substantzia kimikoak dituzten ontziak zaindu eta ondo daudela egiaztatu.
- Gordetzerakoan **kontuan har itzazu produktuen arriskugarritasun-ezaugarriak** eta horien bateraezintasunak; antzeko ezaugarriak dituztenak batera jar itzazu eta toxikoak, minbizi-sortzaileak, lehergarriak, kiratsa botatzen dutenak eta abar isolatu edo bakartuta utzi.
- Produktu kimikoak dagokien lekuan utzi biltegian.
- Produktuek **etiketa** behar bezala jarrita dutela **egiaztatu**.
- **Irekita edo gaizki tapatuta dauden ontziak ez itzazu gorde**.
- Produktua bere ezaugarri fisiko-kimikoengatik **hozkailu edo izozkailu batean gorde behar denean, halaxe adieraz ezazu** bere atean.
- Produktu kimikoak gordetzeko erabiltzen diren hozkailuetan ez sartu ez janaririk ez edaririk.
- Erre daitezkeen eta korrosiboak diren produktuak elkarrengandik bereizi eta gainerako produktuetatik aparte jar itzazu, batez ere lurrinak sor daitezkeela ikusten baduzu.
- **Ez itzazu produktu kimikoak gorde hondakinekin nahasita**, edozein eratakoak izanda ere.
- Ez pilatu produktuak lurrian.
- Ez itzazu produktu kimiko berriak gorde, haien arduradunaren berariazko baimenik gabe.

LANERAKO OHITURA EGOKIAK HARTU

- Produktu kimikoak erabili ondoren **garbitu eskuak**. Likido garbigarriarekin eta ur ugariarekin garbitzea komeni da. Ez itzazu disolbatzaile organikoak erabil (ad: azetona), toxikoa larruazalean errazago sartzen baita horiek erabiliz gero.
- Produktu kimikoak erabiltzen ari zarenean, ez ukitu aurpegia eskuekin, ez egin hazkarik. Ez ezazu mahaitik urrunduta lan egin.
- **Laneko mantalak eta arropak ondo lotuta** eta ilea bilduta eraman beti; ez eraman ezer zintzilik, ezta mahuka zabaleko arroparik ere.
- **Mahuka luzeko alkandorak** erabil itzazu, larruazala ez ziprztintzeko.
- Produktu kimikoak erabiltzen ari zaren bitartean, **ez erre eta ez jan ezer**. Ez jan txiklerik. Ez erabili kosmetikorik.
- Begiak etengabe gorritzen bazaizkizu eta batez ere segurtasun-betaurrekoak derrigor jantzi beharrekoak ez direnean, ez erabili ukipen-lenteak. Hobe duzu segurtasuneko betaurreko graduatuak erabiltzea edo horien azpian betaurreko graduatuak eramateko aukera ematen dutenak erabiltzea.
- **Ondo babestu zauri irekiak**, horietatik barrena toxikoak errazago sartzen baitira.
- Kasu egin seinaleei.
- Ondo jabetu produktu kimikoek dituzten arrisku-mota desberdinez eta errespetatu zure lankideen eginkizuna.
- Haurdun bazaude edo horren susmorik baduzu Laneko Osasun sailean galdetu.

BESTE NEURRI BATZUK

- Gaizki dauden ontziak eta iraungitako produktu kimikoak bereizi eta identifikatu.
- Zerbait isuriz gero, nahiz eta oso gutxi izan, berehala jaso ezazu. Gela haizeberritu, su har dezaketen gauzak kendu eta, ahal dela, ez ezazu lurrinik arnastu.
- Ezbeharren bat gertatuz gero, hau da, prestakin kimikoren bat irentsiz gero, joan berehala medikuarengana eta erakutsi iezaiozu produktuaren etiketa edo ontzia.
- Erabiltzen ari ez diren ekipa elektrikoak, gas-aparatuak eta abar deskonektatuta daudela egiaztatu.
- **Dena txukun eta garbi eduki**.